Suari so

LUR ALBIZU ETXETXIPIA
DBH 3. eta 4. kurtsoak 3. Saria
Zizur Nagusiko IES Cizur Mayor

Ederki oroitzen naiz egun hartaz. Gutun hau idatzi nuen berbera. Zuri idatzi nizun, Mikel, nahiz eta hilik egon, gertu sentitzen zintudalako oraindik ere. Nire mesanotxeko kaxoian ezkutatu nuen eta, biharamunean bertan Iruñera joan nintzen bizitzera, gure alaba Argiarekin. Eta hamar urte eman ditut han, herrira itzultzeko indarrak hartu ditudan arte.

«Zer moduz, laztana?

Orain dela urteak ikusten ez zaitudala. Erraz esaten da, ezta? Baina niri segundo bakoitza, minutu bakoitza, ordu bakoitza bizitza osoa egiten zait. Joan zinenetik. Primeran dut gogoan alde egin zenuen eguna, beste mundu batera, inork ere ezagutuko ez zintuen mundu ezkutura, eta agian, zoriona aurkituko zenuen lekura. Eta leku horretan egon naiz pentsatzen azken urteotan. Segundo bakoitzean, minutu bakoitzean, ordu bakoitzean beste mundu hartan egon naiz pentsatzen. Zer ez nizun nik eman? Zergatik alde egin zenuen?

»Badakizu? Batzuetan, orduak ematen ditut suari so. Bizia da, intentsitate handikoa. Baina, denborarekin itzali egiten da, eta errautsak uzten ditu. Bizitza bezalakoa dela ez duzu uste? Bizitza piztu egiten da, eta pixkana pixkana, bizitasuna hartzen du, sugar handiak izan arte. Baina, gutxinaka berriro ere, itzaliz doa, itzaliz, hiltzen den arte. Bizitza pasioa da, bizitza guztia da, eta nire ustetan, sua bizia da, piztuz eta itzaliz doan bizitza.

»Eta suari begira ematen ditudan orduetan, begiak ixten ditut, eta zure aurpegia ikusten dut. Aurpegi zoriontsua, gazteak ginenekoa. Gero, berriro ikusten zaitut, baina irudi honetan goibel zaude. Horrela eman zenituen azken hilabeteak. Triste. Ez zenekien hitz polit bat ere esaten, «esker mila» bat ere ez zen ateratzen ahoa zabaltzen zenuenean. Ahaztu egin zitzaigun zer zen hori. Minez gogoratzen dut gure azken bolada txar hura. Eta damutu egiten naiz behin eta berriz zuri esandako hitz desegoki bakoitzaz, aurpegi txar bakoitzaz. Eta konturatu egiten naiz gure maitasuna ere sua izan zela, pasioz betetako sua; indar handiz hasi zen gure erlazioa, sugar ikaragarriez hornitua, edozeri aurre egiteko gai zena. Baina ez genuen ikasi sugar horiek mantentzen, edo agian ez genuen sua gorde nahi izan. Zergatik? Zergatik joan zinen? Zeure buruari tiro egin zenion urriko arrats hartatik neure buruan jira eta bira dabil galdera hori; batzuetan erotuko naizela ere uste dut. Gauza bakarra eskatzen dizut! Bakarra, Mikel! Zein izan zen hori egitera bultzatu zintuen arrazoia. Berdin zait zein den erantzuna, zer nolako min emango didan, barruko mamu hau askatzeko balioko badit.

»Guztiaren gainetik nik maite izan zaitut, maite zaitut eta beti maiteko zaitut. Orain zeure buruaz beste egin zenuen etxe honetatik noa. Bizitza osoa eman nuen berdinetik. Ez dut zure oroitzapenarekin nire burua torturatzeko gogorik. Ez gehiago, Mikel. Jada bost urte dira hemen ez zaudela. Egunen batean akaso itzuliko naiz, baina indarrak hartu behar ditut beste bizi berri bati ekiteko.

Miren.»

Ganbarara igo naiz, eta oroigarriak ikusten pasa dut arratsalde osoa, hainbat urtetan bilatzen jardun dudan erantzuna izan litekeena aurkitu dudan arte. Kartoizko kutxa baten barnean, alkoholezko botila artean aurkitu dut. Gutunazal bat, nire izena ipinita duena. Ezin dut sinetsi, Mikelen letra da, 1993ko urtarrilaren 14koa. Hil zen egunaren aurrekoa. Irakurtzera noa.

«Arraizu, 1993ko urtarrilaren 14ean

Miren maitea:

»Aldez aurretik eta ezer baino lehenago, barkatu. Barkatu gure ezkon-garai honetan egindako min guztiagatik, pasarazi dizkizudan momentu txar guztiengatik, hitz itsusi bakoitzagatik, nire azken aldiko berekoitasunagatik, nire tristurarengatik, gure alabekin izan dudan tratu hotzarengatik, aurpegi txarrengatik, borroka bakoitzagatik, etxera berandu heldu naizen aldi guztiengatik, haserretu naizen une bakoitzagatik, azken bolada txar honengatik, zu entzun ez izanagatik, zugan konfiantzarik ez izateagatik, zu besarkatu eta dena ongi joango dela ez esateagatik, «eskerrik asko» xinple bat nire ahotik ez ateratzeagatik. Barkatu. Eta barkatu orain egingo dudanagatik, egitera behartuta nagoenagatik, zuri egia ezkutatzeagatik, azken hilabeteotan gezurrak besterik ez esateagatik. Baina badakit, denborarekin bada ere, barkatuko didazula egin dudana, emakume zintzoa eta bihotz onekoa zara eta. Askok ikasi behar genuke zu bezalakoak izaten! Benetan, eta bihotzez esaten dizut, barkaidazu.

»Zergatik egingo dudan? Istorio luzea da, baina jakiteko eskubide osoa duzula sinetsita nago, eta merezi duzu egia jakitea.

»Orain dela lau hilabete hasi zen dena. Lanetik bota egin niduten, Miren. Nagusiak deitu egin zidan eta bere bulegora joateko agindu. Han nintzela, inolako esplikaziorik eman gabe, enpresak ez ninduela behar bota zidan aurpegira. Ez nindutela behar! Hogei urteren ondoren ez nindutela behar! Agur esan eta atea danbateko batez itxi egin zidan! Nola izan liteke hain pertsona eskergabekoa? Hogei urtetan guztia eman dut nire lanagatik! Gauzak hartu eta etxerako bidea hartu nuen, baina zer esango nizun? «Kaixo, laztana, lanetik bota egin naute, zer iruditzen? Gureak egin du!» Ez, ezin nizun esan, hondoratuko zinateke. Horregatik, etxera itzuli beharrean, ondoko herrirantz abiatu nintzen pare bat ardo hartzera. Mila aldiz madarikatzen dut oker hura, eta mila aldiz madarikatuko.

»Bi ardotxo izan behar zirena azkenean bi kopa, eta hiru, lau, bost kopa bihurtu ziren. Mozkortu egin nintzen, eta egun hartan etxera

deitu eta ez itxaroteko eskatu nizun, gauean iritsiko nintzela, lanez lepo nenbilela eta. Ez zintuen deiak harritu, eta zu lo zeunden bitartean nik edaten jarraitzen nuen. Une horretan erabaki nuen ez zinela nire lanarenaz konturatu behar.

»Hurrengo hilabeteak etxetik ordu berean alde egiten eman ditut, lanera nindoala esanez, baina badakizu zer egiten dudan? Droga kontuetan sartua nago, Miren, leporaino gainera. Hasieran erraza iruditu zitzaidan, merkantzia leku batetik bestera eramatea besterik ez baitzen, eta diru dezente eramaten nuen etxera. Nire helburua betetzen ari zen: dirua etxera eraman, zuk lanean ez nenbilela ez zenekien bitartean.

»Lehenengo bi hilabeteetan ez zen arazorik izan. Droga eraman, ekarri, eta kitto. Baina horrelako sustantzien ondoan egotean, tentazioari ezin izan nion eutsi. Eta probatuz hasi nintzen, drogen mendera eroriko ez nintzelakoan. Ze inozoa ni. Probatuz eta probatuz, drogazale bihurtu nintzen, eta drogen menpean jarraitzen dut. Honen ondorioz, merkantziako zatitxoak erosten hasi nintzen, eta beraz, etxerako diru gutxiago lortzen, zergaz menpe egotera iritsi naizen arte. Zorrak ditut nonahi, eta ezin dut gehiago, bihotza.

»Baina hori ez da okerrena. Orain dela astebete egin nuena, ordea, bai. Sinetsi ezinik nago oraindik egin nuena nire buruan ikusten dudanean. Goizeko 8ak inguru izango ziren, eta mozkor-mozkor eginda nentorren etxerantz, larunbat gau zoroa pasa ondoren. Kotxea gidatzen nenbilen, etxetik kilometro batera-edo, eta bat-batean, itzal bat ikusi nuen kotxetik zentimetro gutxira. Galgei eragin nien indar handiz, baina jada beranduegi zen. Gorputzak nire kotxearen aurka hartu zuen kolpe, eta zorura zerraldo erori zen. Korrika jaitsi nintzen kotxetik, eta aurpegia norena zen ikusita hotz geratu nintzen. Hotzikara batek zeharkatu zuen nire gorputza. Ama zen, nire ama! Oinez zihoan nire etxerantz! Oihu isil bat atera zitzaidan ahotik. Baina badakizu zer egin nuen ondoren? Kotxea arrankatu eta etxera joan nintzen! Ezer gertatu izan ez balitz bezala! Nire ama hiltzen utzi dut, Miren! Nire ama! Ni erditu ninduen bera! Eta hiletara joateko adorea ere izan nuen, nola izan naizen hain lotsagabea? Gorpua lurpean uzten zuten

bitartean ni negar egiten nengoen! Baina ez dut adorerik munduari esateko nik hil dudala neure ama! Zuri gezurra besterik ez dizudala esan, hilabete hauetan drogen munduan sartu naizela! Lanetik bota ninduten egunean etxera joan eta egia aitortu izan banizu, nire ama hemen egongo zen, eta irtenbidea aurkiturik izango genuen!

»Baina orain berandu da. Ni neu sartu naiz zulo beltz honetan, eta ezin naiz atera. Ezin dit inork lagundu.

»Badakit neurekoi hutsa ari naizela izaten momentu honetan, eta bi alaba eta emaztea bakarrik utziko ditudala. Baina zer egin dezaket? Poliziarengana jo? Ez, kartzelan penaz hilko nintzateke, hobe dut neure burua akabatu; ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatu? Ezin dut! Ezingo naiz edonola bizi. Irtenbide bakar bat dago: heriotza bera.

»Berriz ere, Miren, barkaidazu, eta ez kontatu inoiz Argia eta Itsasori egia osoa. Benetan, eskertuko dizut, beste mundu batean egiten badut ere. Ez dut gehiago bizi nahi, ez eta zuk eta alabek sufritzerik nahi.

»Azkenik, nigatik egin duzun guztia eskertzeko unea heldu da. ESKER MILA, laztana, zaren bezalakoa izateagatik, beti egia esan izanagatik, beti arazoak hain umoretsu hartzeagatik, zure irribarrearengatik, eta zure bihotz zabal horrengatik. Zutaz maiteminduta jarraitzen dut, hezurretaraino, zuk hori jakitea merezi duzu, uste baitut azkenaldian beste toki batean ikusi nauzula, eta ez duzula maitasun keinurik ikusi niregandik. Eta hala ere, ni maitatzen jarraitu duzu. Eskerrik asko guzti horrengatik.

»Maite zaitut.

Mikel»

Orain ulertzen dut dena, Mikel. Eskerrak, berandu bada ere, ez naizen arrazoi horiek jakin gabe hil. Eskerrak Jainkoari, gutun hau aurkitu izanari! Eskerrik asko, azkenean eta berandu bazen ere, dena argitu nahi izan zenidala. Pisu jasanezina zen soinean neramana. Orain ezin naiz arinago sentitu, esker mila guztiagatik, Mikel.

Atzera begira jartzen banaiz suari so nagoen bitartean, orain dela

hamar urte ez bezala, irribartsu ikusten zaitut, eta zoriontsu, eta umore oneko. Eta begiak ixtean zure azken uneetako aurpegi goibela ezin dut ikusi. Eta konturatzen naiz hemendik aurrera bakarrik oroitzapen onak izango ditudala, bakarrik onak.

Berriz ere, entzuten ez badidazu ere, maite zaitut, eta beti maiteko!